

Balentin Ziarrusta

*Dima, Bizkaia
(1927)*

Aurkibidea

Biografia



Dimako Munitta baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Gazte denboran lan ugari egin behar izan zuen. Aitak ehulea zuen etxean eta telak egiten zituen. Aitari lagundu behar izaten zion eta gero basora joan lanera. Basoan lan egin izan du mutikotatik eta, gainera, garai haietan aurrerapenik ez zegoenez, trontzarekin ibiltzen ziren. Animalia izenak jasotzeko egin zitzaion elkarriketa 2002an.

Zintak

DIM-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko txori eta animaliak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2002-06-18
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Sarasua Aranberri, Asier

Pasarteak

1. Animalia izenak: ogigazta, basakatua, ur-txakurra?

- **Erref:** DIM-001/003
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Animalia-izenak: "ogi-gaztaia" (erbinudea), basakatua, azeria? "Ogi-gaztaia" nolakoa den. Basakatu-klaseak daude, baina denek izen bera dute. Basakatuaren antzekoa, uretan ibiltzen dena: ur-txakurra. Inguruetan halako gutxi ikusten dira.

2. Erlastarrak eta "kurrilloak"

- **Erref:** DIM-001/006
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Erlastarren eta "kurrilloen" arteko aldea. "Erlastarra" okerragoa da norberarentzat, ausiki egiten du eta.

3. Sagarrek izaten dituzten zomorroak

- **Erref:** DIM-001/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Sagarrek edukitzen duten mamarroari "lupue" deitu izan diote. Harrak edo zorriak ere izan ditzake sagarrak.

4. Zorriak, ardiak eta kaparrak

- **Erref:** DIM-001/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Buruan edukitzen den zomorroari zorria deitzen zaio eta gorputzean izaten denari ardia. Lehenago pertsonak gorputzean ere zorriak izaten zituzten. Berak ere izan omen zituen soldaduskan egon zenean. "Kaparrea" da horien antzeko zomorroa; hau gorputzera itsasten da.

5. Lehen putzu gehiago eta zomorro gehiago

- **Erref:** DIM-001/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Zomorro asko galdu dira lehendik, lehen putzu gehiago zeudelako. Lehen igelak kantuan entzuten ziren, baina gaur egun ez. Zomorroi lokatzatan egotea gustatzen zaie, eta putzuak desagertzean (lehortzean) asko galdu egin dira.</p>

Transkripzioa

-Asko aldatu da, animaliak eta mamarruak-eta asko aldatu dira?
-Bai asko aldatu da.
-Bai?
-Bai. Eske lehenao pozuek-eta egoten zien honetan, txarkoak-eta; oin ez dau txarkorik bez, oin ez dau ezer ta. Sano aldatu da hori. Lehenao hemen ranea, txubelazue-ta, kantetan geubean, goxean kantetan txarkoan paraute; oin ez da entzuten, oin ez da entzuten.
-Gehien aldatu dana zer da?
-Hori aldatu ba aldatu, pozuek-eta kendu ein diez ta, pozuek eta kendu ditue, ze horrek gure iziten deure lupetza. Zuk esango dozu /esangozu/ mamarruak, gustetan jako lupetza. Hori oin be iturritan-ta, egoten da iturri eta iturrik dauzen lekuen-ta, tuberien be sartzean da hori, horrek korridu eiten deu, tuberien artean korridu eiten deu, eta lupetza bigun dauen lekuen hor egoten diez oin be, baia gitxi ikusten da, gitxi ikusten da, ez da ukusten, lehenako moduen e, lehenao bai, lehenao nahiñon ikusten ziren, esku artean beti; oiñ ez da ukusten holakorik.

6. Ogigazta, pizti arriskutsua

- **Erref:** DIM-001/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:45. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>Abere gutxiago ikusten dira lehengo aldean. "Ogi-gaztaia" (erbinudea) abere arriskutsua da eta pozoi handia omen du; haren horzkada oso arriskutsua da. Mixarrak eta bestelakoak ere gutxi daude lehengo aldean. Lehenago basakatu eta mixarrak harrapatzen ibiltzen ziren, haien larrua saltzeko.</p>

Transkripzioa

-Lehen esan dozuzenak ogigaztaia eta basakatua eta holakoak be aldatu dira?

-Bai, horrek be sano, lehenao ogigaztaia ta... Ogigaztaiak beneno handie deko, ogigaztaiak, bu...

-Peligrosoa da?

-Peligrosoa eta beneno handie, ogigaztaiagaz kontuz!

-Bai e? Txikie da.

-Txikie baie okerra. Ogigaztaiak usike eiten badotsu /botsu/ joan medikugana arin ze... beneno purue.

-Hagiñetan?

-Beneno purue. Honek zerak mixerra ta... Bai, mixerra hondiño badao, baia honik basakatue-ta bo bai... honitan gitxi. Lehenao..., lehenaoako zaharrak honek basakatuok-eta honik zerak narrue, narruek balio iziten euen / iziteuen/ asko, ta haik ibiltzen ziren harrapetan, basokatuek-ta harrapetan-ta.

-Bai? Hamen inguruan? Arratia inguruan-eta?

-Bai, azagarie-ta.

-Azagaria be bai e? Narrua saltzeko.

-Zepoakaz eta lehenao asko ibiltzen ziren. Oin horrek hemen inguruen ez dauku, gitxi ikusten da, gitxi ikusten diez horrik.

7. Inguruetan ugarietak basurdeak

- **Erref:** DIM-001/014
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Bera ez da inoiz ibili ehizan, baina basoan lanean sarri. Inguruetan jendeak badu ehizarako zaletasuna. Azkonarrak ibiltzen dira oraindik inguruetan. Azkonarraren inguruko kontuak. Inguruetan gehien dabilen animalia basaurdea da. Ziurrenik gaur egun babestuta daudelako mantenduko dira zenbait animalia, lehen hil edo tiroekin beldurtu egiten zirelako. Azkonarrak zepoarekin harrapatzen zituzten.

8. Piztien larrua abrigoak egiteko

- **Erref:** DIM-001/016
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:29:25. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Basapiztien larrua abrigoak egiteko saltzen zen Bilbon. Bere emaztearen aitak harrapatzen zituen halako piztiak zepo handiekin.

9. Kuku eta txantxangorrien arteko kontuak

- **Erref:** DIM-001/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

<p>"Txindorraren" (txantxangorriaren) habian arrautzak jartzen ditu kukuak; eta, gero, kumeak "txindorrak" hazten dizkio. Euren etxe inguruen ere izan zuten halako habia bat.</p>

10. Basoko lana gogorra eta irabazia urria

- **Erref:** DIM-001/021
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:52:45. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Fauna

Laburpena:

Lehen piztia gehiago ikusten ziren basoetan. Inguruetako basoetan ibiltzen zen lanean trontzarekin. Egun guztian gogor lan egin eta gutxi irabazten zen. 14 urterekin hasi zen basoan lanean. Bidea egiten ibili zenean, astean pezeta bat irabazten zuen. Nola egin zuten bidea.

11. Aitak tela egiten zuen; ehulearen inguruko azalpenak

- **Erref:** DIM-001/023
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:55:35. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Munitta baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Aitak ehulea izan zuen eta telak egiten zituen. Berak aitari lagundu behar izaten zion lehenbizi eta gero basora lanera. Ehulearen inguruko azalpenak. Asturiar bat izaten zuen aitak laguntzaile gisa. Inguruetan baziren ehule gehiago. Azkenengoz, alkandorak egiteko tela egin zuten. Haria harilean edo matazetan etortzen zen; "hari-bolea". Ehulea. Tela egiteko prozesuaren inguruko azalpenak

12. Garia eta artoa egiten ziren; gaztetako bizimodu gogorra

- **Erref:** DIM-001/024
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Nolako gazte-denbora izan zuen, lan eta lan. Garia eta artoa egiten ziren inguruetan. Eguraldia asko aldatu da lehendik.</p>

13. Ehunezko telak izarak egiteko

- **Erref:** DIM-001/025
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:01:50. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ehunezko telak izaten ziren lehengoak, izarak egiteko. Astoarekin saltzera eramaten zituzten gero.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com